

## Mondragon Unibertsitateak Lehen Hiztegia berrargitaratu du, haurrak eta nerabeak gogoan

2011/06/03

Orain hoguei urte **Eskoriatzako Irakasle Eskolak** erabaki zuen euskarazko hiztegi bat egitea haurrentzat eta nerabeentzat. Beste baliabide bat gehiago izango zen euskal eskoletan. **Lehen Hiztegia** izan zen hura, eta Xabier Mendiguren Bereziartuk koordinatu zuen. Hiztegiak arrakasta handia izan zuen gaztetxoan artean, eta urte batzuk geroago, bigarren argitaraldi bat izan zuen, orduan Vox eta Anaia-Haritza argitaletxeen eskutik.

Egun hauetan, berriz, Lehen Hiztegia haren hirugarren argitaraldia agertu da, erabat berritua. Egileek aitortu dutenez, "jatorrizko argitalpen hura hartu dugu oinarritzat, baina berritu egin dugu: batetik, formatu eroso eta modernoagoa eskaini nahi izan diogu gure hiztegia kontsultazera datorrenari, kolore eta letra-motak ere garai berrietara egokitu ditugu. Eta, bestetik, Euskaltzaindiaren azken arauekin bat datozen testuak aurkituko dituzu orriotan".

Edonola ere, aurreko argitalpenen filosofiaren haritik dator hirugarren hau ere; alegia, hizkuntzarekin lehenbiziko harremanak dutenen interes eta kezkei erantzuteko helburuarekin, hau ere haurrak eta nerabeak gogoan atondu da-eta.

Hiztegiarekin batera, argitalpen honek hainbat azalpen dakartza hiztegia ulertzeko, alfabetoa eta zenbakiak, sinboloak, deklinabidea, aditza, hitz eratorriak eta izendegiak nahiz herritarren izenak. Horrezaz gain, amaieran, hainbat lamina erakusten dira, zenbait kontzeptu irudi bidez azaltzeko.

